

### AZUR GURA ZAITUT NIK

Orrela ba litz, Jauna, ez litzakit obeto?  
Azur gura zaitut nik, eta aragi gorritzka.  
Gaiki naiago zaitut ene begiz neurtzeko,  
apur baten zaidazan biotz-miñez besarka.

Gaia nai zaitut, Jauna, sagar-lorea iduri,  
ixil-ixillik eta negarrari emona;  
aldiaz beti eder, amai bage ta urduri,  
niri malkoak txautzen dozula zoriona.

Orrelaxe nai zaitut, izadian gurena,  
dirdai zoragarritan, zelai pitxiz betean;  
odei illunskan erdian euri-jas biziarena,  
maitezko sumendi bat giza-osin-barnean.

Ni ar bat nozu zirtzil, ezer-eza ziurrik,  
olan ninduzun erne, eta zaitut jauresten;  
aurreko makur ortan begi biok jarririk,  
munduz jantzita zaitut dardarati ikuskatzen.

Urrun zakustaz baiña, oben-erbatz artean,  
ta nik, Jauna, zergaitik argiago ez artzen?  
Nik etzaitut gogo, ez, sasiaren errean,  
biotz ondoan baiño sugar biziz kiskaltzen.

Oiuz bada diñotzut «Zatoz poz-iturria,  
zatoz maite-truixua; uiol naizu osoro  
betearren betez ixuririk grazia,  
zoriontsu bizi nadin Zuretzat aldi oro».

*Igotz*